

MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

MAREA URDINA

Patakon itsasgizona da, baina aspaldian lehorrean dabil. Gaur itsasora joan da Ane Piratarekin. Marea Urdinako lagunek itsasoaren handitasuna eta aniztasuna erakutsi nahi diete.



to BIZIPOZA

elkarlanean

Aspaldi ez nuen sentrazio eder hau. Itsasoak kulunkatzen nauenean ahaztu egiten zait hanka bakarria dudala.

Hara! Ni ez nintzen gogoratu ere egiten zure hankapaloarekin. Nik beti zu ikusten zaitut, Patakon. Eta zu horrelakoa zara. Ez zaitut beste era batera imajinatzen.




Agian zuk bai, baina jende askok Patakon ikusi aurretik falta zaion hanka ikusten du.

Arraro begiratzen didate eta isilik geratzen dira. Sikiera gerturatu eta lasai galdetuko balidate zer pasa zaidan.


Segur aski galdetzeari beldurra diote. Desberdina denak beldurtu egiten gaitu, ez dakigulako nola gerturatu.






Goazen,
guk egingo dugu lehen
partea igerian eta gero
pasako diegu
erreleboa besteei.

Goazen ba!




Ane Piratak zabal-zabalik ditu
begiak eta itsasoaren azpian
espero ez zuen koloretako
mundua deskubritu du.



Arrain txikiak ikusi ditu, handiak, makalak,
igeri gaizki egiten dutenak, presaka
dabiltzanak, saltoka doazenak, oihu
egiten dutenak, barre algaraka doazenak,
sekulako argia egiten dutenak, igeri
alderantziz egiten dutenak, itsuak,
biribilean igeri egiten dutenak...

Hemengo hau oso-oso langilea da eta garun paralisia dauka; hango bihurri hark autismoa dauka; barre algaraka doanak entzuteko zailtasunak dauzka; saltoka doanaren hegatsak makalak dira; beste eder hark hegats bakarra dauka; biribilean dabilena bakartia da batzuetan...



Zer moduz joan da, Ane?

Harrigarria izan da, amets bat bezalakoa.





#mareaurdina

Marea Urdina 2018. urtean sortu zen. Igerilariak diren eta autismoa gertutik ezagutzen duten lau lagunek bultzatu zuten ekimen bat izan zen olatua altxatu zuen haizea: Gipuzkoako kostaldea igerian osatzea aniztasun funtzionala jendarterean bistan jarri eta inklusioa bultzatzeko.



Olatua asko handitu da eta gaur egun 25 familiek osatzen dute elkarteak. Askotariko ekimenak antolatzen dituzte aniztasun funtzionala jendarteratzeko eta benetako inklusioa bultzatzeko; eskolan, kirolean, kulturean, aisialdian...

Urola bailaran kokatzen da elkarteak eta bertan aniztasun funtzionala daukaten herritarrak bistaratzeko lan handia egiten ari da; bailaran antolatzen diren jarduerak desberdinetan tokia izan dezaten bultzatzen du eta horretarako bailarako herritarrei "inklusioaren betaurrekoak" jantztea da erronka.



www.mareaurdina.org / info@mareaurdina.org